



ALEGIA PILOTAREN TOPALEKU

Eguberrietako VI. Pilota Topaketaren finalak jokatuko dituzte bihar, Alegiko Elorri pilotalekuan » 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-01-03

VIURTEA 1.326.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Iñaxio Perurena: «jasoaldian, harria goian ez eusteak pena eman zidan»

ASTEASU Leitzarrak 290 kiloko harria jaso zuen pasa den astelehenean, ordura arte zuen marka gaindituz

BALEKOA «Etxean lortu nuen harria berdindutakoan gelditzea, eta hori egin nahi nuen plazan», azaldu du 7



Toni La Sal-ek Birusak erasoan ikuskizuna eskaini zuen atzokoan. I. GARCIA

HAUR ETA GAZTEAK GUSTURA EGUNOTAKO EKITALDIEKIN

IRURA Atzo txotxongiloak eta karaokea izan zituzten; gaur, berriz, Txan Magoaren ikuskizuna izango dute, 17:30etik aurrera 3

Lasterka amaitu zuten urtea korrikalari ugari

TOLOSALDEA Villabona-Zizurkilen, Tolosan eta Lizartzan San Silbestre probak antolatu zituzten, 1.000 korrikalari baino gehiagorekin 2



Lizartzan 40 lagun inguruk hartu zuten parte. HITZA

INAUTERIAK 2008



Materiala prest dago! ADI! urtarrilaren 31 ostegun gizena



Elbarrena Industrialdea
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

www.jaiakdenda.com

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena
Orduetgia: Astelehenetik larunbatera: 10:00-13:00 / 16:00-20:00



1.000 korrikalari baino gehiago Tolosa eta Villabona-Zizurkilgo lasterketetan

Kirola » Urteari amaiera emateko San Sibestre lasterketetan hartu zuten parte eskualdeko korrikalari askok.

INIGO TERRADILLOS

Urte berrian sartuak gara dagoeneko, eta urte zaharriari agur esateko makina bat modu daudela ere ikusi dugu. Horietako bat lasterka egitea da, eta urtero moduan eskualdeko hainbat herritan San Sibestre lasterketa antolatuta ohi dute.

Tolosan, Samaniego-Orixe ikastetxeak antolatzen du Elkartasun krosa, eta aurtengoak inoizko parte-hartzaile kopururik altuena izan du, 600 lasterkari baino gehiago. Antolatzaileak gustura azaldu dira izan duen harrerarekin eta bertako giroarekin, eta ez zutela espero horrelako kopuru handia azaldu dute. Maila bakoitzeko irabazleez gain, Armando Roca ere saritu zuten bere ibilbidearengatik. Bestalde, Kolonbiako eskola bati laguntzeko izango da bildutako dirua, eta krosaren egunean bertan mahai bat ere jarri zuten Kolonbiako produktuekin.

Villabona-Zizurkilgo ere arrakasta

Zunbeltz eta Urkamendi elkarteek XXIV. Urte Zaharreko lasterketa antolatu zuten. Ibilbidea berdina izaten da urtero, baina aldatzen dena helmuga eta irteera izaten da; hala, aurtengoan Zizurkilgo Urkamendi elkartearen ondotik abiatu ziren 480 parte-hartzaileak. Oier Ibarbia eta Pili Bodegas izan ziren azkarrenak.

TOLOSAKO SAILKAPENA

Helduak mutilak

1. Ramon Otegi (Gaztelu).
2. Joseba Jauregi (Tolosa).
3. Manu Otermin (Tolosa).

Helduak neskek

1. Oihane Vazquez (Ikaztegieta).
2. Leire Agirrezabala (Ibarra).
3. Mertxe Maiztegi (Tolosa).

Benjamin mutilak

1. Andoni Agirrezabala (San Juan).
2. Aitor Irurzun (Irurako ikastola).
3. Hodei Martinez (Samaniego).

Benjamin neskek

1. Ainhoa Garikano (Laskorain).
2. Maddi Amundarain (Uzturpe).
3. Eider Calahorra (Laskorain).

Alebin mutilak

1. Hodei Arrieta (Samaniego).
2. Joseba Olaetxea (Laskorain).
3. Iñigo Garmendia (San Juan).

Alebin neskek

1. Jone Gomez (Laskorain).
2. Amaia Elizegi (Hirukide).
3. Maitane Lizartza (Samaniego).

Infantil mutilak

1. Kepa Eizagirre (Anoeta).
2. Alexander Irurzun (Anoeta).
3. Iñigo Izeta (Laskorain).

Infantil neskek

1. Maddi Garikano (Laskorain).
2. Garazi Zabaleta (Legazpi).
3. Ane Dabila (Orixe).

Beteranoak

1. Mertxe Maiztegi (Tolosa).
1. Ramon Otegi (Gaztelu).



Goian Villabona-Zizurkilgo irabazleetako batzuk. Behean, Tolosakoak. HITZA

VILLABONA-ZIZURKILGO SAILKAPENA

HELDUAK MUTILAK

1. Oier Ibarbia (Zizurkil).
2. Hassan Ait Chaou (Villabona).
3. Patxi Urizar (Villabona).

Neskek

1. Pili Bodegas (Lasarte).
2. Ixiar Zugasti (Villabona).
3. Amaia Arbillaga (Tolosa).

Benjaminak

1. Ander Zuriarrain (Villabona).
1. Maria Alvarez (Villabona).

Alebinak

1. Mikel Sagastibeltza (Leitza).
1. Izaro Garmendia (Asteasu).

Infantilak

1. Jon Aranguren (Azpeitia).
1. Lierni Kamio (Villabona).

Kadeteak

1. Jon Ander Mora (Donostia).
1. Ane Chaparro (Zizurkil).

Jubenilak

1. Julen Sagastibeltza (Leitza).

Beteranoak

1. David Huebra (Zumarraga).
1. Sara Puga (Villabona).

Alkoholismoari buruzko hitzaldia izango da hilaren 11n, Kultur Etxean

Tolosa » Uzturre Alkoholiko Anonimoen Elkartearen 15. urteurrenaren baitan antolatutako ekitaldia da.

ERRERAKZIOA

Uzturre Alkoholiko Anonimoen Elkarteak, 15. urteurrena duela eta, alkoholismoari buruzko hitzaldia antolatu du Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuarekin elkarlanean. Hitzaldia gai honetan interesa duten guztiei zuzenduta dago. Urtarrilaren 11n izango da, 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean.

Sarrera Jose Agustín Arrieta, Gizarte Zerbitzuetako eta Osasun zinegotziak egingo du; alkoholismoaren gaixotasuna Pili Oronoz, mediku psikiatrak azalduko du; alkoholismoaren eragina familian gaia Lurdes Senovilla Gizarte laguntzaile eta Al-Anoneko kideak aztertuko du; eta azkenik, irtenbidea badago, Alkoholiko Anonimoen Elkarteak kide baten eskutik.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerbitzu: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Lizartzan hirugarrenez egin dute lasterketa

I. TERRADILLOS

Otsabio kirol elkarteak antolatzen du Lizartzan Urte Zahar eguneko San Sibestre proba. Hain zuzen ere, aurtengoarekin hiru urte bete ditu lasterketak bertan, pixkana ohitura bilakatzen ari delarik.

Denera, 40 lagun inguruk hartu zuten parte. 4 kilometroko bidea egin behar zuten. Ibilbideari dagokionez, 4 buelta eman behar zizkieten herriari guztiek batera, eta azken buelta sprintean egin zuten, bakoitza bere aldetik.



Proba amaitsu eta gero txokolatea hartu zuten parte-hartzaileek. HITZA

Adin guztietako jendeak hartu zuten parte lasterketan, eta proba amaitsu eta gero txokolatea hartu zuten denek indarberritzeko.

Bestalde, antolatzaileek, hau da, Otsabio elkarteak aurtentzako elastiko berriak jarri zituen salgai proban.

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu



Gazteek atzo egin zuten karaokearen une bat. I. GARCIA

Txotxongiloak haurrentzat, karaokea gazteentzat

Irura » Eguberrietako egitarauaren baitan gozatzeko aukera izan zuten irurarrek; gaur Txan Magoaren ikuskizuna

I. GARCIA

Irurako Eguberrietako egitaraua bere amaierara iristen ari da pixkanaka, Erregeen Eguna iristen ari den heinean. Atzokoan haurrek txotxongilo emanaldia izan zuten Ikastolako aretoan. Eta gazteek, berriz, karaokea izan zuten Kulturunean.

Toni La Sal-ek bere *Birusak era-soan* ikuskizuna eman zuen hau-

rentzat. Hauek eta beraien gurasoak bertan izan ziren eta ia aulkiguztiak bete zituzten. Gazteek berriak eman zuten ikuskizuna. 10 bat lagun elkartu ziren eta Gaztegunean kantari aritu ziren konplexurik gabe, ordenagailu batean irakurritako karaokean, estilo guztietako abestiak.

Magjaren unea

Gaurkoan Txan Magoaren emanaldia izango da Irurako Eguberrietako egitarauaren baitan. Haur, gazte eta helduei zuzendutako emanaldia izango da.

Mago ezagunak bere emanaldia 17:30ean emango du, Ikastolako ekitaldi aretoan.

Abenduan egindako Udalbatzari buruzko iritzia eman du EAEk

Asteasu » Aurkeztutako hiru mozioetatik bitan ez ziren bere osotasunean onartu Udalbatzak eta bestean abstenitu egin zen

ERREDAKZIOA

Asteasuko EAE-ANV alderdiak abenduaren amaieran egindako Udalbatzari gertatutakoaren inguruan bere iritzia eman du. Hiru mozia aurkeztu zituen alderdiak Udalbatza horretara. Bata, ESAITen izenean, bestea 18/98 *auzia*-ri buruzkoa eta bestea Urte Zahar egunean Aiztondo bailarako Udalek deitzen duten manifestazioaren inguruan.

Udalbatzak ESAITen mozia bere horretan ez zuela onartu azaldu dute EAEtik: «Hiru punturekin ados zeuden eta beste biekin ez. Ez

zuten egin bat manifestaziora joateko deialdiarekin». Beste mozio bat aurkeztu zuen Bai Asteasuri taldeak, hiru puntu hartzen zituen, eta hori onartu zuten.

«Atxikimendurik ez»

EAEk azaldu duenez, 18/98 *auzia*-ren inguruan zortzi puntuko mozioa aurkeztu zuen. «Euskal Herriko Udal guztietara aurkeztutakoa izan zen, baina Bai Asteasurik zortzi puntu horietatik ez zituen lau onartu».

Aiztondo bailarako Udalek deitzen duten Urte Zaharreko manifestaziora buruzko mozioa ere aurkeztu zuten azaldu dute EAEtik. «Abstenitu egin ziren mozia bozkatzerakoan eta, beraz, ez zen onartu. Horrela, Asteasu izan da bailarako Udal bakarra ez duena eman atxikimendua manifestazioari».

Bi zauritu Mission 439 diskotekaren inguruan, liskar baten ondoren

Irura » Zaurituak Asuncion klinikara eraman zituzten; Ertzaintzak ez du zaurituen larritasunaren berri eman

I. GARCIA

Iruran dagoen Mission 439 diskotekaren inguruan liskar bat izan zen atzoko goizean. Ertzaintzak azaldu duenez, 12:30ak inguruan izan zen eta bi pertsona zaurituta atera dira liskarretik. Bi lagun horiek Tolosako Asuncion Klinikara eraman zituzten. Ertzaintzak ez du zehaztu zaurien larritasuna.

Gertaeraren lekuko batek azaldu duenez, auto bat iritsi zen diskotekaren parera atzo eguerdian. Bertatik bi lagun atera dira, burua estalita zutela eta diskotekaren atea jo dute. Diskotekatik atera zirenean, autoz iritsi zirenak joka hasi ziren, tartean labankadak emanez. Ondoren, autoa hartu eta bertatik aldegin zuten.

Laburrak

Txuri Urdinera irteera, gaur anoetar gazteek

ANOETA » Anoetako Eguberrietako egitarauaren baitan, gaur irteera egingo dute Txuri Urdinera. LH3tik aurrerako ikasleek izango dute horretarako aukera. 10:00etatik 14:30era bitartean izango da irteeran orduategia. Bihar ere izango da ekitaldirik. 17:00etan udal areto nagusian magia ikuskizuna izango da. Ondoren, 18:00etan, magia tailerra egingo dute toki berean. Bestalde, ikastaroen baitan, gaur antzerkirako izena eman dutenek bigarrenengo saioa izango dute, 16:00etatik 18:00etara. Gogoratu behar da ere liburutegia itxita izango dela Eguberrietan zehar.

Bi film, gaurtik hasita, asteburu honetarako

VILLABONA » Gaurtik hasiko dira zinema emanaldiak Gurea aretoan, bihar jazz kontzertua baitago eta, beraz, ez da egongo emanaldirik. Bi film ikusteko aukera izango da. Asteburu honetan. Alde batetik *Un funeral de muerte* eta, bestetik, *La brujula dorada*. Lehenengoa gaur 20:30ean, larunbatean 22:30ean eta astelehenean 21:30ean (ikuslearen eguna) ikusi ahaliko da. *La brujula dorada*, berriz, larunbatean 12:00etan eta 17:00etan, eta igandean 17:30ean eta 20:00ean ikusi ahaliko da. Azken hau adin guztientzat zuzendutako emanaldiak izango dira eta sarrerak hiru euro balioko ditu.



Presoen eskubideen alde

POLITIKA » Urte amaierarekin bat elkarretaratzeak eta manifestazioak egin ziren eskualdean, euskal presoen eskubideen alde. Esaterako, Aiztondo bailarako bost Udalek bultzatuta manifestazioa egin zuten ehunka lagunek Zizurkiletik Villabonara (goiko argazkian). Anoetan elkarretartzea egin zuten 80 lagun inguruk (bigarren argazkian). Horretaz gain, abenduaren 28an ere egin ziren ohiko elkarretaratzeak, hileko azken ostirala izanik. Adunan egindako elkarretartzean, esaterako, 15 lagun inguru bildu ziren. LEIRE ZUBELDIA/HITZA

EAEk udal aurrekontuak aurkeztuko ditu jendearen aurrean

Villabona » Gaur egingo du lehenengo aurkezpena Gurea aretoan; hurrengo Amasako Kultur Etxean izango da, hilaren 10ean

ERREDAKZIOA

EAE-ANV Udal taldeak 2008rako aurrekontuak aurkeztuko ditu jendearen aurrean. Bi alditan egingo du: gaur, Gurea aretoan, 19:00etan, eta hilaren 10ean,

20:00etan, Amasako kultur etxean.

EAEtik azaldu dutenez, «gure Udal taldeak, zinegotzi guztiak eta alkatea buru duen taldeak proposamen bat garatu du». Horretarako inkesta bat jarri zuten abian «herriarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko. Modu berean herriko eragile desberdinen ekarpenak ere jaso ditugu». Orain herriarrei erakustea da beraien gogoak, «Villabona herriarrek eta herriarrentzat egin nahi dugulako».

Bihar, finalak

Pilota » Bihar VI. Eguberrietako Pilota Topaketan Aitzoko, Ikaztegietako, Alegiko, Amezketako eta Bedaioko haurrek hartuko dute parte.

EREDAKZIOA

Bihar arratsaldean, 16:00etan hasita, VI. Eguberrietako Pilota Topaketaren finalak jokatuko dituzte Alegiko Eloorri pilotalekuan. Prebenjaminak, benjaminak, aletinak eta infantilak dira jokakoak dituzten mailak, eta parte hartzen duten herriak, berriz, Amezketako, Alegia, Aitzoketa, Ikaztegietako.

Benjaminak, berriz, hauek dira: Gorria Altuna-Kepa Mendez eta Aratz Irizarabarroena-Aitor Agirre. Lau aletinak honakoak dira: Eihaur Larrea-Mikel Luzuriaga eta Beñat Bekiko-Maxxo Karrena. Maila aletinakoak eta kokoratuak infantilak dira: bharako fitaketa. Kasu honetan, Itxaki Lande-Mikel Oiarbide eta Itxaki Oiarbide-Beñat Arandia izango dira auzerak.



Irudian, aurten topaketan aritu diren pilotari guztiak: Alegiko, Amezketako, Aitzoko, Ikaztegietako eta Bedaiokoak.

Prebenjaminetan Mikel Murua-Itxaki Munua bitoketa Oier Zubeldia-Eneko Agirre bikotearen kontra arliko dira.

15 pilotari jaitzsi dira aurten Alegian. Amezketatik, berriz, 7 Bedaietik bi pilotari izan dira topaketa honetan; Ikaztegietako 6 haurdik dira, eta bertako 35.

Antolatzaileak

Aurtengo Pilota Topaketako antolatzaileak hauek izan dira: Amezketako Guraso Elkarteak, Alegiko

Guraso Elkarteak, Aitzoko Pilota eskola, Ikaztegietako Pilota eskola eta Alegiko Pilota eskola. Hurbileko herrien lauren arteko pilotajoketza dute helburu nagusia. Beraz, bihar frontoian pilotajoketza gaituzte, gaituzte eta pilotajoketza dute pilotariak, eta jendeak elkar ezagutzeko ere behar du pilotatzaile horiek.

Laburrak

AHTri buruzko erakusketak prestatu du AGTK

AHEZETA » Amezketako udalbatzerako arloko zuzen Abadur Harkitxo Trenari buruzko informazio panelak jarri dituzte, eta baita libiduen buruzko informazio ere bai. Etzi arte egongo dira ikusgai. Ekitaldi hau Amezketako Gazte Taldeak antolatuta du, eta erakusketak honen helburua hori da: proiektu honen nondik norakoak erakustera ematea, hain zuzen. Egun osoan zehar izango dira paratik ikusgai. Ez da proiektu hau ezagutzera emateko egiten duten ekitaldi bakarra, abenduan lan asko egin dute.

Ezizako umeen jolasak eta dantzak prestatu dituzte

ALEGA » Alegian Eguberrien ikurtakotako egutegi berria bukatzen ari da. Azkeneko ekitaldia etzilaio izango da. Emegon elorrearen batera. Bihar, pilota 16:00etatik aurrera, eta etzi, berriz, 11:00etan umeen jolasak. Dantzen Toki taldearen emandako eta tokilote berria izango da hurbiltzen diren etzi. 19:00etan, berriz, Errege Nagioen etzera izango da eta plazan ikusgai dira denak.

Bertso eskola abiarazi nahi dute herritarrentzat

AHEZETA » Amezketan Bertso Eskola abian edo martxoan jarri nahi dute. Pemandu Amezketara dattu nahi diote eta honetarako zenbaterainoko interesa dagoen jakin nahi dute. Auzo honetan, bertsoen munduan eta eskola bat martxoan jarriko proiektu honetan inbertsioa egin, gero, nahiz heldu nahiz gaitzeto. Beandeberriko Itxaki Amundarain Tolosarekin hamermanetan jarriko jakitera eman dute, baina emandako jendetzaren araberako osatuko dira taldeak. Beraz, bertsoetan ikasteko gogoa dutenek de dezatela.



Erremontari Koko, z/g. TOLOSALA 1d. 943 47 16 50.

baietz asmatu!

Orain alkar negoziatzen gaitu ezarriko gaitu. 20, 40 eta 60 euruko gaitu gaitu. 20 euruko gaitu, 40 euruko gaitu, 60 euruko gaitu. Gaitu gaitu.



Bigarren eskuko azokarekin 'pozik'

GAZTETA » Joan den ostiralean Aitzokan gazteek azoka antolatu zuten. Herriko ugari gertatu zen. Lan batean berriz, Aitzoko gazteen banda izan zen. Hauek saltzeaz gain, herriko batek emandako oleoan pintatutako koadroen enkantea antolatu zuten. Jasotako dirua, herria eskatu duten lokalak egokitzeko erabiliko dute. Azalako arrakasta kuxista, ingandean meztako itxera aprobezatu, beste azoka bat antolatuko da. Herrikoak pozik agertu dira, gazteen iniziatiba honen aurrean. Gaur Larraungo gazteek plazan 17:00etan 2. eskuko azoka jarriko dute.

Zurea da hitza

Askori ez zaio egokitu uste bezalako etxea

HERTARAT
Voith-Corostidiko etxebizitzetasana zozketan, asko dira dispartura geratu direnak: batzuek etxe handiegia egokitu zaielako eta ondantzen lanak izango dituztelako, besteak, nahi baino txikiagoa egokitu zaielako. Aukera bat litzateke, elkarrekin harrometan jarri eta etxeak trukatzeak ados jarreza: baina Udalak ez du balmentzen. Honela, adibidez, lagun bakarrak egokitu zaio kasu askotan

euskaltel

Gabonetan, 2x1 edukiari bi mugikoei De eta nahi beste hitz egin eta erabili linea bat doan.

arratxo

300 ANIMALI EZBERDIN BAINO GEHIAKO

ARRATXO ANIMALI EZBERDIN BAINO GEHIAKO. ARRATXO ANIMALI EZBERDIN BAINO GEHIAKO. ARRATXO ANIMALI EZBERDIN BAINO GEHIAKO.

G Gutunak

Publizitate sexistarik ez!
Emakumeok gure
eskubideen alde borrokan

Gabonetan sartuta gauden hone-tan, ohiko publizitatea areagotu egiten da. Kontrolrik gabeko kontsumismora bultzatzen gaituzten mezuak edonon aurki ditzakegu: kalean, komunikabideetan, dendetan,... Beste behin ere, gizon nahiz emakumeoi estereotipo eta eginkizun zehatzak bideratzen zaizkigun irudiak batean eta beste-an topa ditzakegu, eta hori haurren kasuan agerikoa da. Esaterako, nor ez du ikusi telebistan nesken-tzako negar, kaka, jan, pixa... egiten duten panpinak, kotxekapotak, sukaldeko elektrodomestiko edo ontzi txiki mota guztiak? Edota ingurukoak zaindu eta apain egoteari lotutako jolasak? Mutilei berriz, kirola egiteko materiala, gerrarako armak (ausartak izan daitezten), bideojokoen bitartez abentura anitzak bizitzera, ibilgailuen funtzionamendua kontrolatzera, espazioaren agintea izatera hel daitezkeela, erakusten zaie.

Kontu zaharrak dira hauek baina egunerokoak izaten jarraitzen dutenak zoritzarrez. Noizko haurrek parekidetasunean hezten lagunduko duen publizitatea? Neska eta mutilen arteko bereizketarik agerraraziko ez duena? Noizko emakumeoi, txikitatik bizitza honetan bete beharko dugun funtzio eta rolik inposatuko ez digun publizitatea? Noizko emakumeon duintasuna errespetatuko duen publizitatea?

Haurren kasuan bakarrik ez, beste mila adibide ere badira, emakume heldu zein gazteengan eragin handia dutenak.

Garbiketa produktuak, sukaldeko elektrodomestikoak, janari anuntzioak,.....publizitateak emakumea agerrarazten du etxeko lan hauen guztien arduradun. Honekin batera, familien zaintzaile nagusi bezala agertzen gara. Ezeren gainetik ama, emazte eta alaba bikainak izan behar dugu. Noizko ordea, gizon eta emakumeak familia barruan, etxe barruan parekidetasunean agerraraziko duen publizitatea?

Zimurren aurkako kremak, kolonia, arropak, dieta egiteko hamaika produktu...emakumeok izan beharreko irudia zein den bideratzen digute publizitatearen

bitartez. Noizko emakume eredu aniztasuna bultzatuko duen publizitatea? Emakume altuak, baxuak, argalak, gizenak, zaharrak, gazteak,...

Emakumeon independentzia faltsua irudikatzen duen publizitate ere ez da falta. Non botere apur bat eskuratu duen emakumeak etxekoandre, zaintzaile, emazte...izaten jarraitzen duen. Hau ez da guk exijitzen dugun parekidetasuna. Gizonezko eta emakumeok aukera eta eskubide berdinak izatea eskatzen dugu, eta ez gizon-nezkoen berdina izatea.

Famili ereduari dagokionean ere, egoera ez da hobea. Publizitateak aurkezten digun famili eredu bat eta bakarra da: ama, aita eta bi seme alaba, neska eta mutila. Noizko geure inguruan dauden famili eredu ezberdinak agertuko dituen publizitatea? Ama edo aita bakarrak seme edo alabarekin, emakume edo gizon bikoteak, guraso banatuak?

Publizitateak objektu soiletan bihurtzen du emakumea, historikoki sistema honekin inposatu dizkigun rol eta eginkizunen mezuak bidaltzen ditu, eta izan beharko genukeen emakume eredu zehatza inposatzen digu. Emakumeak errespetatu eta era duin batean tratatuko duen publizitatea existitu eta lortu behar dugulako, Bilgune Feministak, Gabonen epealdian salaketa egiteaz gain, jendartea kontzientziatzea eta publizitate sexista ez onartzea helburu duen kanpaina abiarazi du urte osoan zehar jarraituko asmoz. Etxeko gutunontzietan publizitate sexistarik ez dugula onartuko adieraziko duen pegatina jartzean datza.

Horretarako, emakume eta gizon guztiak "Publizitate sexistarik ez!" pegatina gutunontzian jartzera animatu nahi ditugu. Emakumeon duintasunaren kontra doan publizitatea etxean ez onartzeko eta denon artean beste jendarte eredu bat eraikitzeke. Eduki sexistarik dituen publizitatearen aurrean, gure ezadostasuna eta boikota adieraziko dugu.

Kanpaina honekin bat egin eta pegatina hori eskuratu nahi baduzu jarri gurekin harremanetan helbide honetara idatziz: tolosaldekobf@euskalerria.org.

Maria Garzia, Oihana Lopetegi eta Eider Elduaen. Tolosa.

@ Eztabaidak. Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia bertan aurkitzen diren gaien inguruan. Horietako bat Gabonen inguruko da, hau da, «Zein da zure iritzia Gabonei buruz?». Zure iritzia idazteaz gain, bertan aurkitzen diren irakurtzeko aukera eskaintzen dizu web orriak, ondorioz, eztabaidarako gune egokia bilakatzeko delarik. Horretaz gain atal ezberdinak aurki ditzakezu gure webgunean:
www.tolosaldekohitza.info



Otaño eta Lasa Olasagastiren aurkako apustuan. Ibarrran Mujika eta Olasagasti garaitu zituzten. JON URBE

Otaño eta Lasa final laurdenetan Olasagasti eta Mujika kanporatu ostean

Aizkolaritza » Urte amaieran Ibarrran eta Asteasun jokatu ziren Urrezko Aizkolarien Binakako probak.

ASIER IMAZ

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren bi saio erabakior jokatu dira azken asteburuan eskualdean. Ibarrran abenduaren 30ean Otaño eta Lasa nagusitu ziren, hurrengo egunean berriz, Asteasun Arria V.a eta Peñagarikano.

Otaño eta Mujika etxean

Ez da erraza herritarren aurrean lehian aritzea, bainairaganigandean, Otaño eta Mujika ibartarrak el-

karren aurka aritu ziren, final laurdenetako txartelaren bila. Jexux Mari Mujikak Olasagasti zuen bikote-kide, Unai Otañok berriz Lasa. Azken hauek lortu zuten garaipena eta ondorioz aurrera egitea.

Norgehiagoka haseratik maldan gora jarri zitzaizen Mujika eta Olasagasti. Golpeka eta erlojuaren aurkako probak jokatu ondoren, 6 segundoko atzerapena bakarrik zuten, baina zutikako txanda librean, tarteak goruntz egin zuen, 24 segundura arte. Hortik aurrerako probetan ere, bikotearen arteko aldea handitzen joan zen eta azken proba, txanda libreko ardean hain zuten minutu eta erdiko aldearekin iritsi ziren Otaño eta Lasa.

Bikote galtzaileak amaieran

onartu zuenez, «haseratik atzetik joateak eragin handia dauka», eta horrela izan zen. Azken sei enborei ekin aurretik, argi zegoen Gipuzkoako Txapelketa eta Lasa izango zirela final-laurdenetan, ezbeharririk gertatu ezean. Amaieran, bi minutu eskaseko aldeaz nagusitu ziren irabazleak.

Asteasun urte zahar egunean

Arria V.ak eta Peñagarikanok erraz lortu zuten Asteasun urteko azken egunean garaipena, multzo lehen postua eta ondorioz final laurdenetarako txartela lortuz. Txapelketa irabazteko aukera handiak dituela erakutsi zuen bikoteak, aixe eta indarrez gaudituz baitzituzten Txapartegi eta Etxebeste.

Laburrak

Larruzko kazadora itzultzeko eskaera

TOLOSA • Laskorain ikastolak Gabonetan Merkatu Txikia antolatuta da Sahara eta Ekuadorren alde. Bertan gertaera bitxia jazo da, izan ere, pertsona batek marroi koloreko larruzko kazadora bat utzi zuen une batez, eta ohartzeko saldu egin zuten. Erosleari kazadora merkatura itzultzeko deia luzatu die, edo bestela 615 20 42 56 zenbakira dei dezala.

Agenda 21eko zozketan parte hartzeko aukera

IBARRA • Agenda 21a dela eta, abenduan Ibarrrako Ekintza Planaren zirriborro bat buzoneatu zitzaizen herritarrei, hauek, Ekintza Plan horretan agertzen ziren ekintzen artean euren lehentasunak finkatu zituzten. Parte-hartzaile guztien artean bi pertsonentzat afari bat zozketatuko da eta izena emateko epea urtarrilaren 7an amaituko da.

Altuna I.a Faustino Torneoko finalean

AMEZKETA • Imanol Altuna Faustino Torneoko finalean egongo da Etxeberria III. arekin bikotea eginenez. Ameketarrek osatzen duen bikotea ez zen favoritoetako bat binakako txapelketa haseran, baina erremontean joku ona erakutsiz, urtarrilaren 12ko finalerako txartela lortu dute. Aurkariak Ezkurra-Olazar edo Urriza-Lizaso izango dira.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. 620 727 691.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Collye arrazakoa. Txuri-beltza, emea. Berastegin aurkitu dute. 686 96 70 31.



Tolosako Beotibar pilotalekuan Inaxio Perurena 280 kiloko harria altxatzen... I. URBE/ARGAZKI-PRESS

Perurena: «Jasoaldia polita izandu zen, baina pena eman zidan goian eutsi ez izanak»

Leitza » Inaxio Perurenak 290 kiloko harria jaso zuen astelehenean Asteasun, eta altxaldi honekin bere marka gainditu zuen

NAIARA GARZIA

Joan den astelehenean Inaxio Perurenak marka gainditzea lortu zuen Asteasun eta 290 kiloko harria altxatu zuen. Honela, amaiera ezin hobea jarri zion 2007. urteari.

Inaxio Perurenak astelehenean Asteasun egindako jasoaldia deskribatu du. «Jasoaldia polita izandu zen, balekoa. Gerrira ateratzekoan pixka bat gelditu bezala egin zitzaidan, gero gerrian kolokatu nuen, egin nuen punturik hobereana gerrian eman nion buelta izan zen, aise eman bainion buelta.

Gero hiru kolpe izan ziren, eta hiru kolperekin berdindu bai, berdindu ongi egin nuen. Jasoaldia polita izandu zen, baina pena eman zidan goian eutsi ez izanak, segundo batzuetan harriari eutsi ez niolako». Harri-jasotzaile leizarra, beraz, pena pixka batekin gelditu zen marka gainditu zuen arren. «Etxean azkeneko entrenamenduetan lortu nuen berdindutakoan gelditzea, segundo batzuetan, eta plazan hori egin nahi nuen, baina berdindu eta bota egin nuen. Horregatik pixka bat triste gelditu nintzen, baina aldi berean, balekoa izan zenez, kontentua».

Perurenak azaldu duenez, horrelakoetan oso urduri jarri ohi da. «Marka guztietan gertatzen zait, oso urduri egoten naiz. Plazak beti horrelako gora-beherak izaten ditu, etxean zure martxan zaude,

lasai, eta hor bezala inoiz ez dira gauzak ateratzen».

Jasoaldia egin ondoren, leizarra pixka bat triste gelditu zen arren, epaileen iritzia eta beste zenbaitena entzun ondoren lasaitu egin zen. «Beti gelditzen zaizu har hori, baina karga hauetara iritsita zaila da dena perfektu ateratzea. Gero ere izanen dira horrelakoak eta harri-jasotzaile batek esandakoarekin geldituko naiz: hemendik aurrera egingen duzun jasoaldirik txarra hau bada, ongi da».

Jaialdiko giroa, ezin hobea

Inaxio Perurenak jaialdian giroa oso ona izan zela azpimarratu du. «Jende asko zegoen eta giroa ikaragarri polita izandu zen. Ez nuen hainbeste jende espero, ni sartu nintzenerako, bete-betea zegoen».



Kontzertua amaitu ondoren jendea zutik jarri zen. ELENE ARRAZOLA/DIARIO DE NOTICIAS

2007. urtearen balantze baikorra egin dute Jeiki korukoek

Kultura » Azkeneko kontzertuak arrakasta ikaragarria izan zuen, eta ondorioz «indarberrituta» sentitzen direla diote

N. GARZIA

Jeiki abesbatzako partaideak «hagitx pozik» agertu dira abenduaren 23an herriko elizan emandako kontzertuaren ondoren, eta amaitu berri den 2007. urteko balantzea «oso baikorra» dela diote.

Jeiki abesbatza aro berri batean murgilduta dago 2004. urteaz geroztik, eta abenduaren 23ko kontzertua horren erakusgarririk garbiena izan zen, kontzertuak arrakasta ikaragarria izan baitzuten.

Urte amaiera ona

Meza Nagusiaren ondoren, Jeiki abesbatzak aurrena Gabonetako hainbat abesti abestu zituen eta ondoren, Sinfonietta Academica orkestrarekin abesbatzako solistek Mozarten *Missa Brevis et Solemnis* abestu zuten. «Zenbat jende bildu zen jakitea zaila da, baina 1000tik hurbil izanen ginen», dio Joxe Mari Azpirotz koruko kide eta lehendakariak. «Eserlekuak erabat beteta zeuden eta jendea koruan zutik zegoen. Berezia izan

da Leitza orkestra bat ekarri ahal izatea. Honek emanaldia asko bete zuen. Kantatzen ari ginenak ere hunkitu egin ginen, amaieran jendea zutik jarri zela ikusita, jendea malkoak zerizkiola». Mozarten mezak zati ezberdinak ditu eta tarteka jendea txaloka hasten zenez, orkestrako zuzendariak eskuarekin jendea isiltzeko eskatu behar izan zion. «Amaitu ondoren eztanda izan zen eta jendea zutik jarri zen. Orkestrakoek ere herriaren inplikazioa azpimarratu zuten». Amaitu ondoren bi bis egin zituzten eta gero, koruko zuzendariari lore sorta bat eman zioten, baita bakarlariei eta orkestrako zuzendariari ere. «Honek loreei allergia dienez, Leitza armarraria oparitu genion, oroimen gisara, inskripzio batekin».

Amaitzeko, Azpirotzek bere esker ona adierazi nahi izan du, koruaren izenean. «Koruko kideek esker ona adierazi nahi diegu bertan izan zirenei, ez zirenei eta modu batera edo bestera lagundu digutenei».

Proiektu berri bat, hastear

Abesbatzak urtea oso ongi amaitu du, «indarberrituta» daudela dio Azpirotzek, eta dagoeneko beste proiektu batean sartzear daude, «luze» joko duen proiektu batean.

H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel: 943-65 56 95

PILAR BARANDIARAN BARANDIARAN

Herenegun hil zen, Ataun, 96 urte zituela.
-Goian bego-

Haren aldeko hileta elizkizuna GAUR,
OSTEGUNA, arratsaldeko BOSTETAN,
San Gregoriko parroki elizan.



ATAUN
2008ko
urtarrilaren 3a

Joxemiel Barandiaran-Murkondo K.E.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



10°
8°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
ESTALIA
10°
8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



2007ari agur, ahots gozoen artean

TOLOSA • Agurtu berri dugu 2007. urtea. Tolosako Hodeiertz, Hodei Truk eta Hodei Truk Samaniego abesbatzek era berezian eman nahi izan zioten agurra eta hobekien egiten dutena baliatu zuten horretarako,

abestea, hain zuzen. Hala, Eguberriko emanaldia eman zuten pasa den abenduaren 29an, larunbata. Santa Klara Elizan eman zuten kontzertua eta jende andana hurbildu zen euren ahotsak entzuterako. HITZA

A Agenda

Deialdiak

- **Villabona.** 2008ko Udal aurrekontuen aurkezpen publikoa, 19:00etan Gurean.
- **Larraul.** Gazteen antolatutako bigarren eskuko azoka plazan, 17:00etan.
- **Tolosa.** Gabonetako merkatu txikia Sahara eta Ekuadorren alde Kultur Etxean, Laskorain Ikastolak antolatuta.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak jakinarazi nahi du, astelehenetan eta asteazkenetan 19:30etatik 21:00etara, 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera izango dela. alpinouzturre@hotmail.com.

dor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Gorka.
Gaur 30 urte.

Ikuskizuna

- **Tolosa.** Niño Costrini clown argentinarraren emanaldia Leidor aretoan 17:00etan.

Zinema

- **Tolosa.** Richard Linklater-en *Fast food nation* filma emango dute Lei-



2 produktu sorta

deitu eta eskuratu



Xurdin en materiala

Sointek Produkzioak-en eskutik



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**

Aukeratu zuk nahi duzuna

Kontratatu 2 linea, eta 1 bakarrik ordaindu*

eta eraman 2 mugikor 0€ erreturik

Nokia 6300

- Kamera
- MP3
- Bideo-erregistratzailea
- grabatzailea

Samsung EggoDUKE

- Kamera
- MP3
- USB konektorea

Akatel 01-C717

- Kamera
- MP3
- Bideo-erregistratzailea
- grabatzailea

2X1

Kontratatu 2 linea, eta 1 bakarrik ordaindu*

eta eraman 2 mugikor 0€-ren truke

Datanis S.A.
INFORMATIKA Y COMUNICACIONES

Euskaltelen Barutze Ofiziala
Maki Dena, 31, Ondarroa, 94 681 34 14
Pasoa Alana, 23, Lekeitio, 94 684 12 26